

2023ko jarduera korporatibo eta finantzarioaren eragin ekonomikoaren azterketa

Kutxabankek eta bere fundazio akziodunek EAEko BPGd-aren % 10,9 sortu zuten, 8.641 M € guztira

- **Euskadiko enpleguaren % 12,5 mantentzen lagundu zuten: 2.931 profesional zuzenean, beren kreditu-jarduerak eta balio-kateak sortutakoei gehituta, 121.500 baino gehiago dira**
- **Zerga-bilketaren (tasak eta zergak) % 4,5 jarri zuten Euskadiko BPGd-ari dagokionez: 223 M € zuzenean eta 3.356 M € bultzatzen duten jarduera ekonomikoarekin**
- **Epe luzeko harremana: 4.000 hornitzailei baino gehiagori egindako erosketak 229 M €-ra igo ziren, eta ordaintzeko epea 15 egun baino gutxiagora murriztu zen**

2024ko urriaren 23an.- Kutxabank Taldearen jarduerak (korporatiboak zein finantzarioak) eta bere fundazio akziodunenak (BBK, Kutxa eta Vital) euskal BPGd-aren % 10,9 sortu zuten 2023an, 8.641 M € guztira. Zehazki, bere jarduera korporatiboaren ekarpena 776 M €-koa izan zen (Euskadiko BPGd-aren ia % 1), eta bere kreditu-jarduerarena lurraldeko ekonomian (7.865 M €) lagungarria izan zen erkidegoko BPGd-aren % 9,9ri eusteko.

Taldearen ekarpena enplegua sortzeari eta mantentzeari dagokionez ere neurtzen da. Kutxabankek 2.931 langile zuzen ditu Euskadin, eta 121.500 profesional baino gehiago dira guztira, kreditu-jarduerak eta balio-kateak sortutakoak barne. Guztizko bolumena Euskadiko enpleguaren % 12,5 da 2023an.

Kutxabank Euskadiko zergadun talde nagusietako bat izan zen, eta zerga-bilketaren % 4,5 egin zuten BPGd-ari dagokionez. Joan den ekitaldian, tasen eta zergen ordainketa 223 M €-koa izan zen zuzenean –azken bost urteetan 1.000 M €-koa izan da–, eta 3.356 M €-koa berak eta bere balio-kateak sortutako jarduerarekin. Adibidez, taldeak Autonomia Erkidegoaren diru-sarrereri egiten dien zuzeneko ekarpena Ekonomia eta Ogasun, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailen urteko aurrekontuen antzekoa da.

Kutxabankek 510,7 milioi euroko emaitza garbia lortu zuen 2023an. Bere zerga-kontribuzioaren ratioa dela eta, zerga aurreko emaitzaren 100 eurotik 30 zergak, tasak eta kontribuzioak ordaintzera bideratzen ditu.

CEPREDEK finantza-taldearentzat eragin ekonomikoaz urtero egiten duen azterlanak bankuak eta bere fundazio akziodunek balio-katearekin duten epe luzeko harremana azpimarratzen du, eta datuetan zehazten du: inbertsioak eta EAEko 4.000 hornitzailei baino gehiagori egindako erosketak 229 M €-koak izan ziren 2023an, eta ordainketa-epea 15 egun baino gutxiagora murriztu zen. Azken bost urteetan, hornitzaileei egindako erosketak 1.100 M €-ra iritsi dira.

Arlo horretan, bankuak lehentasuna ematen die erosketak jasagarriari, tokiko hornitzaileekiko harremanari eta, besteak beste, ingurumena babesteari, giza eskubideei eta ustelkeriaren aurkako neurriei buruzko Mundu Itunaren printzipioak balio-katean hedatzeari, akordioen eta aholkularitzaren bidez.

Kapilaritatea, erreferentzia finantzarioa eta aitzindaria inbertsio sozialki arduratsuan

Kutxabank banku liderra da Euskadin, % 40 baino gehiagoko merkatu-kuotarekin etxebizitzan (hipotekak) finantzaketan eta nomina helbideratuetan; % 50 baino gehiago pentsioen kudeaketan eta % 40 baino gehiagoko kuota inbertsio-fondoetan. Erakundea erreferentzia da, halaber, euskal administrazioentzat, 6.000 M € baino gehiagoko finantzaketarekin partikularrei eta enpresei emanda.

Kutxabankek Euskadin duen presentziaren kapilaritatea finantza-inklusioren bermea da: izan ere, Euskadiko 46 udalerritan sukurtsal bat duen banku bakarra da, eta bere langileen % 10ek baino gehiagok (300 guztira) landa-inguruneetan ematen du zerbitzua.

Gizarte-inbertsio arduratsuan aitzindaria, taldeak 1.800 milioi euro bideratzen ditu finantzaketa iraunkorrera jasangarritasun-irizpideekin, eta bolumen horren % 70 enpresetarako da. 2023an, *Sustainalytics*-ek, ESGren alorreko analisirako enpresa independenteak mundu-mailan sailkapen onena duten konpainien % 1en barruan sailkatu du erakundea, eremu honetan maila ezdeusarekin.

BPGd-aren % 2,5 eta 100 enplegutik 2,8 Espainian

Kutxabankek eta bere fundazio akziodunek Espainia osoko BPGd-aren % 2,5 sortu zuten, guztira 33.928 M € 2023an, bai zuzenean, bai zeharka eta modu induzituan, kreditu-jarduerak eta bere hornitzaileen artean bultzatzen duenak sortuta.

Taldeak 5.674 pertsonari ematen die enplegu zuzena, 530.000 profesional baino gehiagori, beren kreditu-jarduerak eta balio-kateak sortutakoak gehituz; hau da, batez beste, 100 enplegutik 2,8 Espainiako Estatuan.

Kutxabanken jarduerak 547 M €-ko zerga-bilketa eragin zuen zuzenean, zerga eta tasa gisa, eta Estatu osoan 14.000 M €-ko ekarpenari eusten lagundu zuen.

2023an, 12.000 enpresak baino gehiagok eman zizkieten zerbitzuak finantza-erakundeari eta bere fundazio akziodunei Espainia osoan, 514 M €-ko balioarekin.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.